Errespetu falta da baita mozio alternatibo bat aurkeztea ia-ia argudioak eman barik. Hemen argudioak eman dira azaltzeko zergatik ez den egokia parking disuasorio bat hor, zein eragin izango duen parking horrek bertan. Uste dut behar beste argudio eta behar besteko pisukoak eman direla hemen, kontu hau berehala baztertzeko, udalerri osoko zirkulazioari eragingo diolako, udalerri osoan berdeguneen behar dagoelako, auzoko bizi kalitateagatik, auzoarekiko zor historikoagatik... behar beste pisuzko arrazoi dago gaur bertan irmo erabakitzeko, leku horretan ez dela aparkalekurik egingo. Erabakia gaur har daiteke eta gaur hartu behar da.

Es, también una falta de respeto presentar una moción alternativa sin apenas proporcionar argumentos. Aquí se han ofrecido argumentos para explicar por qué no es apropiado un parking disuasorio en ese lugar, qué consecuencias va a tener. Creo que se han dado suficientes argumentos y de suficiente peso como para descartar ya y por razones de afección del tráfico en todo el municipio, por razones de necesidad de espacios verdes en todo en municipio, por razones de calidad de vida en el barrio, por razones de deuda histórica con el barrio... hay suficientes razones de peso como para hoy, ya, tomar una decisión contundente de que no se va a hacer un parking ahí. La decisión se puede y se debe de tomar hoy.

Osoko bilkura amaitzean, nahi baduzue, hitza eska dezakezue berriro hitz hartu edo balorazioren bat egin nahi baduzue.

Si queréis, al finalizar el pleno, podéis solicitar la palabra por si queréis intervenir de nuevo o tenéis alguna valoración qué hacer.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Gauza bat ordena kontu moduan. Nik ez dut hemen nire lana egiten errespetu faltaz; txaloen asuntoa nire lana da, nire lana da ordena mantentzea pleno areto honetan eta oso eskuzabala izaten naiz denboraren gaiarekin, bost minutu izaten dira lehenengo bueltan eta 9 minutu egon zara berbetan.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Una cuestión sobre el orden. Yo no hago mi trabajo con faltas de respeto; la cuestión de los aplausos es mi trabajo, me corresponde a mí mantener el orden en este salón de plenos, y suelo ser muy generosa con el tema del tiempo. En la primera vuelta os corresponden cinco minutos y tú has estado hablando durante 9 minutos.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Erantzuna eskatzen zaigu eta kritikatu egin zaigu mozio alternatibo bat ekarri dugulako. Esan beharra dago mozio alternatiboa aurkezteko eskubide osoa daukagula. Uste dut mozio honetan ez dugula esaten batzarrean esan ez dugun ezer, gure erantzuna hau izan zen eta mantendu egiten dugu, badakit ez dela entzun nahi duten erantzuna.

Ez dakigu parkinga egingo den edo ez oraindik ikertzen ari direlako, baina ondorioak ditugunean ikusiko dugu beharrezkoa den ala ez, disuasorioa izan behar den edo ez.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak mozoiak bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Jatorrizko mozioa, Euskal Herria Bildu aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrak** aurkezturiko ordezko mozioaren testua.

*4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Se nos pide una respuesta y se nos ha criticado el hecho de presentar una moción alternativa. Se debe decir que tenemos todo el derecho a presentar la moción alternativa. Creo que en esta moción no decimos nada que no hayamos mencionado en la reunión. Ésta fue nuestra respuesta y la mantenemos; sé que no es la respuesta que quieren oír.

No sabemos si se hará el parking o no porque el estudio está en marcha, pero cuando tengamos las conclusiones veremos si es necesario o no y si debe ser disuasorio o no.

Finalizado el debate, la Presidencia somete las mociones a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

Moción alternativa presentada por el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Votos a favor: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y uno del Partido Popular.

Moción original presentada por Euskal Herria Bildu:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por el **Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra**, anteriormente transcrita.

**ZAZPI.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, LGTBI+ PERTSONEN SEXU-ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2018004937, 2018KO EKAINAREN 20KOA).**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 7. puntuan ez gara sartuko testu bateratu bat daukagulako. 7. puntua aterako dugu gai-ordenetik teknikariek prestatutako testu bat daukagulako eta Adierazpen moduan aho batez onartuko dugulako.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Esan behar dugu testua oso berandu heldu dela, baina ikusten dugu gai batzuetan adierazpen instituzional bat hobea dela, beraz, eta behin testua apur bat gainetik ikusita, onartu egiten dugu eta mozioa kenduko dugu denon arteko adostasuna egoteko.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Guk onartzen dugu adierazpena, baina denbora gehixeago eskatzen dugu irakurri, aztertu eta zer boto eman nahi dugun erabakitzeko. Osoko Bilkura arratsaldeko bostetan eta mezu bat iritsi zaigu ordu bietan, jakinarazpenik gabe. Uste dut, gutxienez, deitu egin behar zitzaigula, testua adosteko.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Horretan geratu ginen atzo Bozeramaleen Batzordean. Badakit zu ez zinela egon, baina zure kidea egon zen eta horretara geratu ginen; hau da, gaur goizean ahal zen neurrian eta ahalik eta arinen bidaliko zela.

**SIETE.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL DÍA INTERNACIONAL POR LA LIBERACIÓN SEXUAL DE LAS PERSONAS LGTBI+. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2018004937, DE 20 DE JUNIO DE 2018).**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: No entraremos en el punto 7, ya que tenemos un texto unificado. Excluiremos el punto 7 del orden del día, porque disponemos de un texto elaborado por los técnicos y lo aprobaremos por unanimidad como Declaración.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Debemos decir que el texto ha llegado muy tarde, pero vemos que en algunos temas es mejor una declaración institucional. Por lo tanto, visto el texto por encima, lo aprobamos y retiramos la moción para que obtengamos un acuerdo entre todos.

* Concejal **Sr. Ríos Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Nosotros aceptamos la declaración, pero sí que pedimos un poco más de tiempo para poder leerla, estudiarla y saber qué es lo que queremos votar. Tenemos un pleno a las cinco de la tarde y nos llega un correo a las dos, sin avisar. Creo que por lo menos debía haber habido una llamada para consensuar.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Quedamos en eso ayer, en la Junta de Portavoces. Sé que tú no acudiste, pero sí acudió tu compañero/a y quedamos en eso; es decir, que se enviaría, a ser posible, hoy a la mañana y cuanto antes.

**ZORTZI.- HERRIAREN ESKUBIDEA TALDEAREN MOZIOA, TAO ETA APARKATZEKO ARAZOEI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2018004942, 2018KO EKAINAREN 20KOA).**

Herriaren Eskubidea Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, TAO eta aparkatzeko arazoei buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2018004942, 2018ko ekainaren 18koa, eta honako hau dioena:

**OCHO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO HERRIAREN ESKUBIDEA, RELATIVA A LA OTA Y PROBLEMAS DE APARCAMIENTO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2018004942, DE 20 DE JUNIO DE 2018).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Herriaren Eskubidea, relativa a la OTA y problemas de aparcamiento, con Registro de Entrada nº 2018004942, de 18 de Junio de 2018, del tenor literal siguiente:

*"Gaur egungo TAO sistemak ez duela funtzionatzen argi agertu digute Olazaran, San Roke, Murueta Torre, San Fausto eta beste hainbat auzotako herritarrek. Orain arteko proposamenek ez dituzte auzook pairatzen duten aparkalekuaren arazoa konpontzen, eta, gainera, handi egiten dute kutsadura, istripu eta arrapaketa arriskua, zarata...*

*Horregatik, osoko bilkura honetan hartutako konpromisoa betetzeko, zera eskatzen dugu:*

- *Herritarren parte hartze prozesua has dadila, pleguak eta zerbitzu berriaren baldintzak adosteko.*
- *Herritarren proposamenak barneratzea, baldin eta administrazioaren kontratazio arloko arauekin bat baletoz eta marko juridikoak ahalbidetzen badu.*
- *Herritarrekin, gutxienez, beste hiru batzar egitea, helburu hauekin:*
  1. *Batzar bat herritarrei zerbitzu berriaren zirriborroa eta Udalak proposatzen dituen aldaketak aurkezteko.*
  2. *Beste bat haien inguruan herritarrek izan ditzaketen ekarpenak jasotzeko.*
  3. *Eta azkena behin betiko proiektua herritarrei aurkezteko. Aurreko batzarretan jasotako proposamenekin eta horretarako sortutako baliabideekin. Horren ostean irizpena emango da batzordean, osoko bilkurara eroateko*."

*"Vecinos y vecinas de Olazarán, San Roque, Murueta Torre, San Fausto y muchos otros barrios, nos han dejado claro que el sistema de OTA actual no funciona y que, las propuestas que se conocen hasta ahora, no son suficientes para solucionar el problema de aparcamiento que sufren estos barrios y que, además, nos genera contaminación, más probabilidad de accidentes o atropellos, ruido,...*

*Por ello, en cumplimiento del compromiso adquirido por este pleno, solicitamos:*

- *Que se ponga en marcha un proceso participativo con la ciudadanía para consensuar los pliegos y las condiciones del nuevo servicio.*
- *Que se incluyan las propuestas presentadas por la ciudadanía, cuando sean acordes las normas en materia de contratación administrativa y cuando el marco jurídico así lo permita.*
- *Que se lleven a cabo al menos tres reuniones más con la ciudadanía:*
  1. *Para presentar a la ciudadanía el borrador del nuevo servicio y cambios que se proponen por parte del ayuntamiento.*
  2. *Para recoger las aportaciones de la ciudadanía al respecto.*
  3. *Para presentar a la ciudadanía el proyecto definitivo, con las propuestas recogidas en las reuniones previas y los medios habilitados para ello, previamente a su dictamen por la comisión y aprobación por el pleno*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Lehenengo aipatu nahi dudana da hizpide izan berri dugun aparkatzeko arazoen inguruko mozioa eta onartu duguna. Irakurri egingo dizuet onartu dena: *"Hirigintza Batzordean, udalerri osorako mugikortasunarean eta aparkatzearen inguruko azterlan osoa garatzea eta aurkeztea".* Gu mozio bat aur-

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Lo primero que quiero comentar es en relación a la moción que acabamos de tratar sobre los problemas de aparcamiento y sobre la aprobación que se ha hecho de, y leo lo que se ha aprobado: *"Desarrollar y presentar un estudio integral de movilidad y aparcamiento en la comisión de Urbanismo para todo el municipio".* Nosotros

keztera gatoz, 9 hilabete igaro baitira TAOren gaia lantzeko herritarrekin biltzea beharrezkoa zela esan genuenetik.

Orain esan diguzue mugikortasunari eta aparkatzeari lotutako azterlan oso bat egin behar dela eta 9 hilabete igaro diren honetan, ez dago egina. Gutxienez harrigarria iruditzen zait hainbeste denbora igaro ondoren, ez izatea oraindik Durangoko aparkatzeko beharren inguruko azterlanik. TAOren kontratua amaitu eta handik 9 hilabetera. Uste dut honek guztiak are gehiago justifikatzen duela gaur guk mozioa ekarri izana.

Esan genuen irailean herritarrek baloratu behar dituztela proposamenak eta erantzuna irmoa izan da. LEBERek Gobernu Taldearen izenean aurkeztu zuenak ez die urte askotan Udalak jaso dituen eskaerei erantzuten.

Olazaran, Mikeldi, San Roke, Muruetatorre, San Fausto eta beste auzo askotako elkarteek, auzotarrek, argi utzi digute auzoetako informazioa emateko jarritako mahaietan eta egindako bileretan, sre sozialen edo mezu elektronikoen bidez edo kalean gurenaga etorrita, gaur egungo TAO sistemak ez duela funtzionatzen eta orain arte ezagutu ditugun proposamenak ez direla nahikoa auzo horietan aparkatzeko dituzten arazoak konpontzko eta gainera, kutsadura, istripuak edo harrapatzeak izateko probabilitate handiagoa, zarata... dakarrela.

Auzotarren ordezkariari entzun berri diogu irtenbide horien zati bat aldirietako aparkalekuak direla, itxuraz ez direnak, eta badirudietal kanpotarren arazoak konpontzeko direla eta ez Durangon bizi garen arazoak konpontzeko. Hori guztia dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigu aparkatzeari lotutako arazo hau seriotasunez hartzea, TAO behar bezala kudeatzea eta ahalik eta lasterren egitea hori guztia Durangoko herritarrekin, herritarrok jasaten baititugu arazo horiek guztiak.

Iraileko Osoko Bilkuran mozio bat aurkeztu genuen –eta onartu egin zen–, TAO zerbitzuaren kontratu berria idazteko lanetan herritarrek parte hartzeko prozesu bat abiaraz zedin. Igaro dira 9 hilabete eta ez dakigu TAOrekin zer gertatuko den.

venimos a presentar una moción porque han pasado 9 meses desde que dijimos que era necesario reunirse con la ciudadanía para trabajar el tema de la OTA.

Que a día de hoy se nos diga que hay que hacer un estudio integral de movilidad y aparcamiento, que 9 meses después no esté hecho, cuando menos, me sorprende que después de todo este tiempo no haya un estudio sobre las necesidades de aparcamiento en Durango; 9 meses después de que el contrato de la OTA haya terminado. Creo que esto justifica aún más que hoy traigamos esta moción aquí.

Ya dijimos en septiembre que debe de ser la ciudadanía la que valorare las propuestas y su respuesta ha sido contundente. Lo que LEBER presentó en nombre del Equipo de Gobierno no responde a las demandas que llevan años trasladando al ayuntamiento.

Asociaciones, vecinos y vecinas de Olazarán, Mikeldi, San Roque, Muruetatorre, San Fausto y muchos otros barrios, nos han dejado claro en las mesas y reuniones informativas en los barrios, a través de las redes sociales o de correos electrónicos, o simplemente acercándose a nosotros y nosotras en la calle, que el sistema de OTA actual no funciona y que, las propuestas que se conocen hasta ahora no son suficientes para solucionar el problema de aparcamiento que sufren estos barrios y que, además, nos genera contaminación, más probabilidad de accidentes o atropellos, ruido,...

Acabamos de escuchar al representante de los vecinos cómo parte de estas soluciones pasan por unos parkings disuasorios, que no lo parecen, y que parece que vienen más a solucionar los problemas de la gente de fuera que los problemas de quienes vivimos en Durango. Por todo esto, creemos que es necesario tomarse en serio este problema del aparcamiento, gestionar debidamente la OTA y hacerlo lo antes posible, junto a la ciudadanía de Durango, que somos los que sufrimos todos estos problemas.

En el pleno del pasado mes de septiembre presentamos una moción que se aprobó, para que se iniciara un proceso de participación ciudadana para la redacción del nuevo contrato del servicio de la OTA. 9 meses después, nada se sabe sobre qué pasará con la OTA.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Herriaren Eskubidea parte hartzeko prozesuen inguruan hizketan entzuten dugunean, badirudi ez direla Udal honetan egon; izan ere, Udal honetan parte hartzeko egiten diren prozesu batzuk aipatuko dizkizut, nahiko parte hartze handia dutenak, gainera: kontseiluak ditugu hainbat alorretan, hiri adeitsuak, hiri debekatuaren mapa, TAO aldaketaren inguruko foroa eta beste foro batzuk.

Proposamena lantzen hasi ginenean, parte hartzeko prozesuak abiaraztea erabaki zen, jaso ditugu proposamenak posta elektronikoaren bidez, telefonoz, eta zehazki esanda, foro bat egin zen abenduan. Ekarpen horietako batzuk txertatu egin ditugu eta horietako bat aipatuko dut, nahiko garrantzitsua; Landakoko osasun zentroarena. Eskatzen digute jar dadila aparkatze bizkorrerako aukera bat adinekoentzat.

Aldaketa horiek egin dira eta herritarren parte hartzeari esker ikusi ditugu. Herritarrak eta haien ekarpenak ez ditugula aintzat hartzen esatea, egia ez esatea da.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: TAO sistemaren moduko ordenantza bat edo aparkalekua arautuko duen ordenantza bat herritarren parte-hartzearekin egitea ezinbestekoa da.

Guretzat, gaur egun ezin dira egin mota honetako ordenantzak edo aldaketak herritarren egunerokotasunean zerikusi handia duten erabakietan herritarren parte-hartze barik eta kontuan hartu barik. Eta nahiz eta Alderdi Sozialistako Bozeramaleak esan kontuan hartzen direla eta badaudela prozesu batzuk, azkeneko osoko bilkuran izan genuen adibide argigarriena kontrako norabidean; hau da, gaur egun Durangon dagoen kontratu garrantzitsuena, diru-kopuruaren aldetik, kale garbiketa eta zabor bilketaren kontratua hain zuzen ere, egin zen herritarren parte-hartzea barik.

Hortik gutxira, herritar batzuk Tokiko Agenda 21eko Jasangarritasun batzordera joan ziren eta bertan enteratu ziren ordenantza hori onartuta zegoela eta beraiek ekarpen batzuk zeuzkaten or-

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Cuando escuchamos a Herriaren Eskubidea hablar de procesos participativos parece que no estuviera en este Ayuntamiento, porque le voy a enumerar unos cuantos que se llevan a cabo desde este Ayuntamiento y se da un nivel de participación bastante alta; y con esto me estoy refiriendo a los consejos que existen en diferentes ámbitos, ciudades amigables, mapa de la ciudad prohibida, foros diferentes que se organizan como los que hicimos con la modificación de la OTA.

Cuando empezamos a trabajar en la propuesta, se decidió llevar a cabo procesos participativos, se han recibido propuestas a través del email, teléfono y, concreto se hico un foro el mes de diciembre para llevarse a cabo. Parte de estas aportaciones se han incluido y voy a citar una de ellas que es bastante importante; la del centro médico de Landako, que nos piden que haya una posibilidad de aparcamiento rápido para las personas mayores.

Son modificaciones que se han llevado a cabo y que se han contemplado a cuenta de la participación ciudadana. Que se diga que no se está teniendo en cuenta a la ciudadanía con las aportaciones que se están haciendo es faltar a la verdad.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Es esencial que una ordenanza del tipo del sistema de la OTA o una ordenanza que regule el aparcamiento se lleve a cabo con la participación ciudadana.

En nuestra opinión, hoy en día no se pueden realizar ordenanzas u cambios de este tipo que influyen notablemente en el día a día de los ciudadanos sin que en las decisiones participen los ciudadanos y sin que se les tenga en cuenta. Y aunque la Portavoz del Partido Socialista diga que sí se tienen en cuenta y que existen varios procesos, el ejemplo más significativo de lo contrario lo tuvimos en la última sesión plenaria; es decir, el contrato más importante de Durango hoy en día, en lo que se refiere a la cuantía, es decir, el contrato sobre la limpieza de las calles y la recogida de basuras se elaboró sin participación ciudadana.

Al poco tiempo, varios ciudadanos acudieron a la Comisión de Sostenibilidad de la Agenda 21 y se enteraron allí que esa ordenanza estaba aprobada y ellos tenían unas aportaciones para aquella ordenanza. No podemos seguir con los

denantza horren inguruan. Ezin dugu jarraitu betiko prozesu administratiboekin, hau da, bulego batzuetan adostu ordenantzak, osoko bilkurara ekarri, gehiengo nahikoa lortu eta herritarrei esan alegazioak egiteko eskubidea daukatela. Gaur egun parte-hartze ordenantza bat daukagu, kostata onartu zena, eta bertan hainbat prozedura daude herritarren parte-hartzea hobetzeko.

Eta, gai honen inguruan ere, herritarrek zeresan handia daukate. Lehenengo eta behin, OTA martxan egon denetik ikusi dugulako hainbat arazo daudela, gune urdinetik kanpo geratu diren guneetan arazo larriak daudelako, gaur egungo OTA sistemak lehenengo eta bigarren mailako herritarrak sortzen dituelako.

Gainera, argi dago gune batzuetan gaur egungo OTA sistema ez dela nahikoa erdigunean ordu konkretu batzuetan lekuak sortzeko. Prozesu honetan merkatariei ere entzun behar diegu; eta ez bakarrik alegazioak egiteko aukera dutela esan, baizik eta lehenengo momentutik entzun behar zaie euren negozioetan ere eragin zuzena duelako OTAren sistemak.

Lotsagarria da momentu honetan tren geltoki azpian dauden 200 plaza hutsik ikustea eta planteatzea leku konkretu batzuetan aparkaleku disuasorioak egin behar direla, hori lotsagarria da. Ez zaigu duina iruditzen herritarrei edo guri ematen zaigun erantzuna izatea hori Eusko Trenen konpetentzia dela. Administrazio publikoa da, lurzoru publiko batean, beraz, 200 plaza horiek irizpide publiko eta orokorrei jarraituta kudeatu behar dira.

Badaude gauzak aldatzeko, badago zer entzuna herritarrei, eta horregatik Herriaren Eskubideari proposamen bat luzatzen diogu, eta da euren mozioaren lehenengo puntuan eskatzea gaur egun daukagun ordenantzan dagoen mekanismoa erabiltzea, hau da, gardentasun gobernu irekiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko araudi organikoan, 65. Artikuluan jasota dauden elkarrizketa-foroak erabiltzea, alegia, elkarrizketa foro berezi bat egitea OTAren inguruan.

procesos administrativos de siempre; es decir, consensuar las ordenanzas en unas oficinas, luego traerlas al Pleno, obtener una mayoría suficiente e informar a los ciudadanos que tienen el derecho de presentar alegaciones. Hoy en día tenemos una ordenanza de participación, que costó lo suyo aprobarla, y que recoge varios procedimientos para mejorar la participación ciudadana.

Y también en este tema, los ciudadanos tienen mucho que decir. Para empezar, porque desde que el OTA está en marcha hemos visto varios problemas, porque en las zonas que se han quedado fuera de la zona azul existen graves problemas, porque el sistema actual de la OTA crea ciudadanos de primera y de segunda clase.

Asimismo, está claro que el sistema actual de OTA es insuficiente para crear plazas en el centro en ciertas horas. En este proceso, debemos, también, escuchar a los comerciantes; y no solamente decirles que tienen la oportunidad de presentar alegaciones, sino hay que escucharles desde el primer momento, porque el sistema de la OTA influye directamente en sus negocios.

Es una vergüenza ver que las 200 plazas que se encuentran debajo de la estación están, en este momento, vacias y que se plantea que en algunas zonas se deben poner aparcamientos disuasorios. Eso es una vergüenza. No nos parece digno que la respuesta proporcionada a los ciudadanos o a nosotros sea que este tema es competencia de eusko Tren. Es una administración pública, en un suelo público, por lo tanto, esas 200 plazas deben gestionarse según criterios públicos y generales.

Tenemos cosas que cambiar, tenemos que escuchar a los ciudadanos, y en ese sentido, dirigimos una propuesta a Herriaren Eskubidea y es que en el punto uno de su moción se pida utilizar el mecanismo recogido en la ordenanza actual; es decir, utilizar los foros recogidos en el artículo 65 del Reglamento Orgánico de Transparencia, Gobierno Abierto y Participación Ciudadana; es decir realizar una foro específico sobre la OTA.

* <u>**Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**</u>: Amaieratik hasiko naiz; onartzen dugu EH Bilduk proposatutako aldaketa. Bestalde, galdera bat egitea gustatuko litzaidake eta zer da, ea norbaitek ba al dakien legealdi honetan Tokiko Agenda 21en foroa zenbat aldiz bildu den.

Eta gaiarekin jarraituz, 2017ko urriaren 1ean amaitu zen gaur egungo TAO zerbitzuaren kontratua. Gaur onartutako aktetako batek hau dio: "irailaren 14an onartu zuen Gobernu Batzordeak ezohiko luzapena, beraz, kontratuak indarrean jarraituko du hurrengo lizitazioa formalizatu arte"; hau da, denbora mugagabean.

Berriro ikusi dugu, beste hainbatetan bezala, luzapena, bigarren luzapena, ezohiko luzapena, oso ezohiko luzapena... ezarri zaizkion kontratu bat. Kontratu berriak kudeatu beharrean, mugarik gabe luzatzen da iraungitako zerbitzu bat, gaur egungo beharrei erantzuten ez diena. Halaxe gertatu zen postaren, zaborren eta beste zerbitzu batzuetako kontratuekin ere.

Lehen esan dugun moduan, mozio bat aurkeztu genuen irailean TAO zerbitzuaren kontratu berria idazteko lanetan herritarrek parte hartzeko prozesu bat abiaraz zedin. Herritarrekin egindako bilera bakarrean, ia denborarik utzi gabe iragarri zen bileran, Udalaren proposamena aurkeztu zen, ia ezer ez aldatzeko proposamena. Bertaratutakoen erantzunak argi utzi zuen berriro herritar asko ez daudela gustura gaur egungo TAO sistemarekin. Auzo askotan aparkatzeko arazo larriak dituzte TAO dela eta.

Osailean, Durangon eginiko azken inkestak berretsi egin zuen aspalditik esaten ari garena: aparkatzea, kutsadura eta bideko segurtasuna dira herritarren kezka nagusiak.

Gaur egungo TAO sistemak ez die Durangoren beharrei erantzuten. Eta arazoaren konplexutasuna ulertzeko ez da nahikoa egun pare batean leku horietara bisita eginda. Egunero arazo horiekin bizi denari galdetu behar zaio. Behar adina aldiz haiekin batera eseri eta auzotarrekin irtenbideak adostu behar dira.

* Concejal <u>**Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**</u>: Por empezar por lo último, aceptamos el cambio propuesto por EH Bildu. Por otro lado, me gustaría dejar una pregunta en el aire, y es a ver si sabe alguien cuántas veces se ha reunido el Foro de la Agenda Local 21 en esta legislatura.

Y siguiendo con el tema, el 1 de octubre de 2017 finalizó el actual contrato del servicio de OTA. En una de las actas aprobadas hoy se dice que "el 14 de septiembre fue aprobado por la Comisión de Gobierno una ampliación extraordinaria, así que el contrato seguirá en vigor hasta que se formalice la próxima licitación", es decir, indefinidamente.

Nuevamente, y ya van unas cuantas veces, nos toca ver un contrato con ampliación, segunda ampliación, ampliación extraordinaria, ampliación extra-extraordinaria,... En lugar de gestionar los nuevos contratos se dedican a alargar indefinidamente un servicio caducado y que no responde a las necesidades actuales, como ya pasara con los servicios postales, las basuras y otros.

Como ya hemos dicho, presentamos una moción en septiembre para que se iniciara un proceso de participación ciudadana para la redacción del nuevo contrato del servicio de la OTA. En la única reunión con los vecinos, que se anunció casi sin tiempo, se presentó la propuesta del ayuntamiento de no cambiar prácticamente nada. La respuesta de los y las asistentes volvió a dejar claro el descontento de gran parte de la ciudadanía con la OTA actual. Muchos barrios sufren graves problemas de aparcamiento actualmente debido a la OTA.

En febrero, la última encuesta realizada en Durango volvía a ratificar lo que venimos tiempo diciendo: el aparcamiento, la contaminación y la seguridad vial aparecen como los principales problemas que preocupan a la ciudadanía.

El sistema actual de OTA no responde a las necesidades de Durango. Y para comprender la complejidad del problema no basta con visitar las zonas un par de días; hay que preguntar a quien convive todos los días con estos problemas. Sentarse las veces que hagan falta y consensuar soluciones con los vecinos y vecinas.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: EAJren izenean nik neuk hitz egingo dut. Parte-hartzearen gai horrekin uste dut arazo txiki bat dagoela Herriaren Eskubidean. Herriaren Eskubideak uste du parte-hartzea bakarrik dela berak edota EH Bilduk egiten dutena; gainerakook egiten duguna ez da ez parte-hartzailetza ez ezer. Parte hartzeko prozesu honetan foro bat egiteaz gain era zabalean proposamena egin zitzaion herriari adierazteko zeintzuk ziren proposamenak, aukerak, kexak... denetarik emailez, web orrialdean, eskuz eta SACera etortzen. Eta hainbat eta hainbat jaso egin dira, beraz, prozesua ez da bakarrik foroa, askoz zabalagoa da.

Eta foroari lotuta, Gobernu Taldetik zortzi bat pertsona egon ginen eta zuk adierazitakoa, hau da, jendea haserre edo deskontentu egon zela, inondik inora ere ez nuen ikusi. Baina izan daiteke durangar ez naizelako, durangar zuek bakarrik zarete, gainerako guztiak antza extraterrestreak gara. Sentitzen dut, baina hori ez zen zuk esaten duzun moduan izan eta bestela galdetu pertsona objektibo bati, hain zuzen ere teknikari jaunari.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Osoko bilkura honetan onartu zen herritarrei zabaldutako prozesu bat abiaraziko zela erabakitzeko prozesu osoan zehar lizitazioaren inguruan, zerbitzu berriaren inguruan eta kontratuaren gainerako kontuen inguruan erabaki ahal izateko. Egin zen, bai, 60 minutuko bilera bat, gaizki informatua, eta 60 minutu haietatik 40 sisteman ez dela ia aldaketarik izango azaltzen eman zituen teknikari batek eta Gobernu Taldeko inork ez zuen aurpegia eman azalpenak emateko.

Bilera hartan 20 minutu besterik ez ziren izan bertaratutako guztiek iritzia emateko, zalantzak, kexak eta proposamenak adierazteko, eta erantzunaren zain daude oraindik. Bilera hartan ukatu egin zitzaien azaldu zituzten arazoak jasango dituztenik eta esan zitzaien, irtenbidea garajeko plaza pribatu bat erostea zela.

Ez dudala egia esaten ere entzun dut eta bitxia da; nik esango dizuet zer den egia ez esatea; esatea da herritarren parte hartzetik jaso dela errotazio eremua, baina teknikarien taldeak auzotarrei

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hablaré yo misma en nombre del PNV. Creo que con el tema de la participación existe un pequeño problema en Herriaren Eskubidea. Herriaren Eskubidea cree que la participación es solamente la que hacen ellos o EH Bildu. Lo que hacemos el resto no es ni participación ni nada. En este proceso de participación, además de realizar un foro, se propuso a la ciudadanía de un modo abierto que manifestaran sus propuestas, oportunidades, quejas y demás mediante email, en la página web, a mano y acudiendo al SAC. Y se han recibido muchos, por lo que el proceso no consiste solamente en el foro, es mucho más amplio.

Y en lo que se refiere al foro, acudimos unas ocho personas del Equipo de Gobierno y lo que has comentado, es decir, que la gente estuvo enfadada o descontenta, yo no lo vi de ninguna manera. Pero eso puede ser por no ser duranguesa, durangueses sois solo vosotros, el resto somos, parece ser, extraterrestres. Lo siento, pero no ocurrió de la manera que has explicado tú, y si te parece, le puedes preguntar a una persona objetiva, es decir al señor técnico.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: En este pleno se aprobó que se abriera un proceso abierto a la ciudadanía para que durante todo el proceso de decisión se pudiera decidir sobre la licitación, sobre el nuevo servicio y demás cosas que conciernen a este contrato. Efectivamente se hizo una reunión de 60 minutos, mal informada de la que 40 minutos fueron para explicar que apenas va a haber variaciones en el sistema, de boca de un técnico y sin nadie del Equipo de Gobierno diera la cara para dar explicaciones.

Una reunión donde apenas tuvieron 20 minutos para que todos y todas las asistentes pudieran dar su opinión, trasladar sus dudas o quejas y propuestas, y de la que todavía están esperando una respuesta. Una reunión donde se les negó que sufrirán los problemas que exponían y donde se les dijo que la solución pasaba por que se compraran una plaza privada de garaje.

También se me ha dicho que falto a la verdad, y es curioso porque voy a decir qué es faltar a la verdad; es decir que se ha recogido de la participación ciudadana la zona de rotación cuando

emandako erantzunetako bat izan zen Muruetatorreko auzotarrek aparkatzeko dituzten arazoak azaldutakoan.

fue una de las respuestas que se dio a la vecindad por parte del equipo técnico cuando se les trasladó la problemática que tienen los vecinos y vecinas de Muruetatorre para aparcar.

Ez dituzue kudeaketa lanak ondo egin urrian TAO berria izan genezan eta dena mugarik gabe ari zarete luzatzen. Beraz, jokatu zentzuz eta egin durangarrekin beharrezkoak diren bilerak, parte hartzea erraztuko duten ordutegiekin eta garaiz iragarrita.

Ya que no han gestionado bien para que ya tuviéramos una nueva OTA en octubre, ya que están alargando todo indefinidamente, al menos tengan la sensatez de hacer las reuniones con los y las duranguesas que sean necesarias, en un horario en el que faciliten la participación y anunciándolo con un tiempo razonable.

TAOk denontzako zerbitzua izan behar du eta ezin ditu lehenengo mailako eta bigarren mailako herritarrak sortu. Jaitsi kalera pertsonentzako eta pertsonekin lan egitera. Auzoetara joan behar da han bizi garenon iritziak, kexak eta iradokizunak jasotzera.

Porque la OTA debe de ser un servicio para todos y todas, y no puede generar ciudadanía de primera y ciudadanía de segunda. Bajen a la calle a trabajar para las personas y con las personas, hay que ir a los barrios a recoger las opiniones, las quejas y las sugerencias de quienes vivimos en ellos.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, Herriaren Eskubidea Taldeko mozioaren testua **UKO EGITEN DU**.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Votos en contra: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **RECHAZA** el texto de la Moción presentada por el Grupo Herriaren Eskubidea, anteriormente transcrita.

**BEDERATZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Nik gauza berarekin jarraitzen dut: hasieran galdera bat zen eta orain erregua da eta seigarren hilabetez jarraian airearen kalitatearen inguruko txostena eskatzen da. Ez dugu gaia ez Osoko Bilkuretan, ez batzordeetan lantzen, bi-

**NUEVE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Yo sigo con lo mismo: empezó siendo una pregunta y ahora es un ruego y por sexto mes consecutivo solicito el informe de calidad del aire que no lo tratamos ni en los plenos, ni en las comisiones...

latze eta atxilotze agindupean dago. Gaia lantzea gustatuko litzaiguke, gure iritziz lehentasunezko gaia baita. Egun batzuetan, airearen kalitateari lotutako indizeak oso altuak dira eta kaltegarriak dira jendearen osasunerako. Hori buruz laster informazioa jasotzea espero eta nahi dut, ez baikara gaia inon jorratzen ari.

está en busca y captura. Nos gustaría que lo tratáramos porque para nosotros es un tema prioritario, seguimos con días en los que los índices de calidad del aire son muy altos y son dañinos para la salud de la gente. Espero y deseo que pronto nos den información sobre eso, porque no se trata en ningún sitio.

- **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**:

  - Ostegun honetan Culturalari harrera egingo zaio udaletxe honetan eta gure aldetik zorionak Culturalari, baina uste dugu zoriondu behar ditugun beste talde batzuk ere badaudelaM adibidez, Durango Rugby Taldea eta Ezkurdi.
  - Hainbat hiletan eskatzen ari gara prezio publikoen inguruko txostena. Gure galdera argia da; Durangokoen eta kanpokoen artean desberdintasunak egon ahal dira prezio aldetik edo ez. Badakigu beste udal batzuetan idazkariek txosten bat egin dutela eta zein den emaitza eta eskatzen duguna da Durangon ere txosten hau egitea.
  - Airearen kalitateari dagokionez, badakigu astelehenean Eusko Jaurlaritzatik datuak heldu direla, airearen kalitatearen txostena heldu da, guk idatziz eskatu dugu eta eskatzen duguna da datu hauek ahalik eta arinen guri eta jende guztiari ezagutaraztea.
  - Madalenako ermita dela eta, eskatzen duguna da udalak asanblada batera deitzea. Guk egin dugu bertakoekin asanblada bat, baina uste dugu udalak deitutako bilera batera jende gehiago hurbilduko dela.
  - Martxoan kreditu-aldarazpen bat egon zen diru-kopuru handi betekin. Horietako bat Matadero inguruko txintxaunetarako dirupartida zen. Kontua da kreditu-aldarazpen hori anulatu egin zela, eta eskatzen duguna da azaltzea zergatik egin zen hori eta, bide batez, zergatik ez den plenora ekarri.

- Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**:

  - Este jueves, será el recibimiento a la Cultural en este Ayuntamiento y por nuestra parte, enhorabuena a la Cultural, pero creemos que hay otros grupos que también debemos felicitar; como son Durango Rugby Taldea y Ezkurdi.
  - Llevamos varios meses pidiento el informe sobre los precios públicos. Nuestra pregunta es clara: ¿puede haber diferencias de precio entre los de Durango y los de fuera o no? Sabemos que en otros ayuntamientos, los secretarios han elaborado un informe y conocemos el resultado y lo que solicitamos es que en Durango se realice, también, ese informe.
  - En lo que se refiere a la calidad del aire, sabemos que el lunes llegaron datos desde el Gobierno Vasco. Ha llegado el informe sobre la calidad del aire, nosotros lo hemos pedido por escrito y lo que pedimos es que se nos den a conocer esos datos, a nosotros y a toda la gente, cuanto antes.
  - En cuanto a la ermita de Madalena, pedimos que el Ayuntamiento convoque una asamblea. Nosotros hemos realizado una con los vecinos, pero creemos que acudiría más gente a una reunión convocada por el Ayuntamiento.
  - En marzo hubo una modificación de crédito con una gran cuantía de dinero. Una de ellas era la partida para los columpios del Matadero. La cuestión es que esa modificación de crédito se anuló y solicitamos que se nos explique por qué se hizo eso y de paso, por qué no se ha traído el tema al Pleno.

- Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Saiatuko naiz batzuk behintzat erantzuten.

   - Julianek galdetutakoaren inguruan baina Eiderrek aipatutakoarekin, esan behar dut ikusi dugula EH Bilduk egindako eskaera, baina oraintsu jaso dugu testu hori, beraz, jaso egingo duzue teknikariarengandik eta teknikariaren azalpenarekin txostena, Jasangarritasun batzordean bertan.

   - Culturalaren omenaldiaren inguruan, ez da gauza bera igotzea edo mantentzea. Nik badakit meritoa badagoela, baina agian errugbi taldeari beste mota bateko errekonozimendu bat egin behar zaio.

   - Prezio publikoen txostenarena: azken finean gaur zabaldutako bideari ekin beharko diogu. Kuriosoa egin zait hainbeste galdetu ostean abstentzioa bozkatzea.

   - Kreditu-aldarazpena: ezin dizut esan kasu zehatza zein izan den, baina bai errakuntza batzuk egon zirela kreditu-aldarazpen hauetan. Nire asmoa da hurrengo plenora ekartzea.

- Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Intentaré responder algunas.

   - En referencia a la pregunta de Julián, pero con lo mencionado por Eider, debo decir que hemos visto la petición realizada por EH Bildu, pero hemos recibido el texto hace poco, así que lo recibiréis por parte del técnico y junto con las explicaciones del técnico, en la Comisión de Sostenibilidad.

   - En el tema del homenaje a la Cultural, no es lo mismo ascende que manenerse. Yo sé que existe el mérito, pero quizá al equipo de rugby le deberíamos hacer otro tipo de recocimiento.

   - Sobre el informe de los precios públicos: debemos mantener la línea iniciada hoy. Me ha parecido curioso que después de tanto preguntar hayáis optado por la abstención.

   - Modificación de crédito: no puedo decirte cual ha sido el caso concreto, pero sí que hubo algunos errores en estas modificaciones de crédito. Mi intención es traer el tema al próximo pleno.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 19:15ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 19:15 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.